



# ihintza

2019ko otsaila

102. zenbakia

XXXVI. urtea



# ZER NON NORR

<b>Aurkezpena</b> .....	03
<b>Gogoetak</b>	
Jon Lezamiz, ERROAK ETA HEGOAK .....	04
Joxe Agustin Arrieta, ZAHARTZARO DUINA .....	05
Juan Luis Urmeneta, IBILIZ EGITEN OMEN DA BIDEA .....	07
<b>Iruzkin literarioak</b>	
Pello Otxoteko, SAKONERAREN MIN .....	08
Anjel Lertxundi, BLUES BAT NEGUARI .....	10
Inaki Zelaia eta Pello Esnal, "AZKEN DEIA" .....	11
<b>Praktika onak</b>	
Jose Manuel Agirrezabalaga, SALLETARRON TOPAKETA .....	13
<b>Kontu kontari</b>	
Joxe Ertzibengoa, ASPALDIKO PARTEZ .....	14
<b>Ikasleen Txokoa</b>	
Irungo La Salle - LH3A, EZ DA EZ .....	16
Naia Hernandez, ALEJANDROREN ISTORIOAK .....	17
Nerea Piquer, ATE DEBEKATUA .....	17
Ainara Landa, TXANGOIA .....	18
Naresh Zubiarrain, FERMATEN TEOREMAN ZINTZILIK .....	19
Uxue Perez, ILTZE HONEK HILTZEN GAITU .....	20
Maddalen Gonzalez, KAIXO, MARIA .....	21
Naiara Suescun, BAKARRIK EGOTEKO MODU BERRIREN BAT .....	22
Unai Balerdi, MUSIKA BAI ALA EZ ETA ZE MOMENTUAN? .....	23
<b>Euskararen Eguna</b>	
Jose Manuel Agirrezabalaga, XXXVII. EUSKARAREN EGUNA .....	24

IHINTZA – Salletarren aldizkaria. 1998. urtean sortua

Zuzendaritza eta erredakzioa: La Salle, 851 postakutxa, 20.080 – Donostia

L.G.: SS 485/84 ISSN: 1135-3945

Gertu inprimategia

Aurreko zenbakia berezia izan zen, Patxi Ezkiaga eta lokin Otaegiren inguruan burutu baikenuen Ihintza. Oraingo honetan normaltasunera itzuli gara, usadioari jarraituz gai ezberdinetara zabalik eta Ikasleen Txokoari bere tokia emanez. Hala ere zenbaki honek badu aurrekoaren oihartzunik.

Neguaeren bihotzean dator, urtarril hotz eta euritsu baten ondoren, kostaldetik urruti xamar genituela elurrak.

Zortzi idazleren lanak jaso ditugu. Gehientsuenak ohiko idazleenak izanik ere, badira bi idazle entzutetsuen idazkiak ere gure orrialde hauetan. Ikasleen Txokoa ongi bete dugu aurreko zenbakitik zain genituen zenbait idazlanekin eta etorri berri zaizkigunekin.

Atal hauetan banatu ditugu jasotako ekarpenak:

**Gogoeta** modukoak. Idazteko erabakia hartu eta horretan saiatzen diren hiru idazleren ekarpen arras ezberdinak aurkituko dituzu.

**Iruzkín literarioa.** Patxi Ezkiaga poetari buruzko bi iruzkin datoz aurrena, literatur sentiberatasun handiz idatziak, zein baino zein ederragoa. Bata, Patxiren azken antologia poetikoaren aurkezpenean Pello Otxotekok esandakoa da, eta bigarrenean antologia horretako *Krisalida* poema-sortan murgiltzen da Anjel Lertxundi. Patxiren “testamentu poetikoa” dela dio. Ondoren, lokin Otaegiren bertso bati zukua ateratzen saiatu dira lokin zenaren bi lagun.

**Praktika on** moduan, Gipuzkoako salletarron topaketa baten berri ematen dugu, La Salleren heriotzaren 300. urtemuga ospatzen dugun honetan.

**Kontu kontari** dihardu mendi ibiltari amorratuak, garai batean Bizkaiko itsas inguruan eginiko ibilbidea errepikatu, gozatu, miretsi eta gero.

**Ikasleen txokoa,** aipatu bezala, ongi horniturik dugu Andoaingo, Beasaingo, Eibarko eta Irungo ikasleen idazkiz: kontakizun, gogoeta eta olerki.

Eta azkenik, garai honetako ohiko kronika bat, salletarrok Arantzazun ospatu genuen **XXXVII. Euskararen Egunaren** kronika. Euskaltzaindiaren mendeurrenak eta Arantzazuko Batzarraren 50. urteurrenak bultzatuta bildu ginen han.

Jarrai dezagun aurreko gure euskal idazleen konpromisoari eutsiz eta belaunaldi berrietan euskaraz idazteko grina piztuz. Ez adiorik!

Jose Manuel Agirrezabalaga



## ERROAK ETA HEGOAK

Jon LEZAMIZ

**A**rtikuluak bidaltzeko epea hurbiltzean hasten naiz nire buruan gaiak aurkitu nahian. Ikasturte hone-tako bigarren alea hel-arazteko urtarrilaren 20a proposatu digute. Urte berriari diosala egin eta aste pare barru, beraz. Ez dut topikoetan erori nahi eta 2019ari buruzko gaiak sistematikoki baztertzen ditut, baina urte berri honi nola aurre egiteko zerbaitez idazteak temoso iraundera nire gogoan. Eta, jakina, azkenean topikoan erori naiz. Dena dela, topiko izan arren, saiatuko naiz ohiko lelokerietatik at mugitzen. Auskalo lortuko dudan!



Sonia Diez getxotar hezitzailearen “¡Educación!”<sup>1</sup> liburua irakurtzean, seigarren ataleko sarreran hain justu, aipu interesgarri bat aurkitu dut. Migel Unamunoren da eta horrela dio: *Sólo hay dos legados durables que podemos dejarles a nuestros hijos. El primero, raíces; el segundo, alas.* Horren itzulpena izango zen: *Gure seme-alabei utz diezazkiekegun bi ondare iraunkor bakarrik daude. Lehena, erroak; bigarrena, hegoak.*

Urte hasieran bi osagai izaten dira usu: bata, efemerideak, urtemugak eta urteurrenak gogoratzea; bestea, hobetzeko desirak azalaraztea. Lehenengoari, ez diot kasu handirik egin nahi. Salletar testuinguruan behin eta berriro gogoan dugu Joan Bautista Lasallekoaren heriotzaren hirurehungarren urtemuga ospatzen dugula eta ahantziz gero, begi bistan azalduko dizkigute oroitzenak nonahi. Horrekin batera, zera eranstenda, Salletar Jubileu Urte eta Salletar Bokazioen Urte direla. Baina niri askotan iraganari buruz hitz egitea eskatzen zaidanez, orain ez zait egoki iruditzen atzera begiratzea. Hamaika aukera izango ditugu hurrengo 300 egun eta koskan.

Aurrera begira jartzean, irrika, irrits eta grinak sortzen zaizkit iradokizunen lapikoan. Lanean

ohituak gara ebaluaketak amaitu aurretik zeintzuk diren hobekuntzarako guneak azpima-rratzen. Pertsonal mailan, urte hasieran berriz, osasunari kasu egiten diogu. Dieta zorrotz bat gorde behar dugula, ariketa sarriago eta plangintza baten arabera egiten jarraitu behar dugula, eta halakoak eta holakoak ... Ohikeria ekiditeko, Gabonetako jaietan idatzi ditudan zorion-agurretan, osasunari buruzko desirei tonu berezi bat eman nahi izan diet. Osasun fisikoari jaramon egin ordez, arlo psikikoan mugatu naiz eta normalean “adore izan dezazula”, “Izan bihotz”, “baketsu eta soseguz bizi zaitzela”... eta tenore bereko esaldiak idatzi ditut, niri hori iruditzen zaidalako garrantzizkoena.

Ez dakit Unamunok zer zioen “erroei” buruz. Baina nik uste ametsekin erlazioa izan zezaketela. Nire aitita, gaztetxo zela, bere jaioterritik, Busturiatik hain zuzen, Deustuko erriberara etorri zen, bere arreba ezkondu baten etxera, eskolara joan ahal izateko. Salletar Anaion eskolan ikasle izan zen. Eta, nonbait, eskola hark hegoak eskuratu zizkion eta gazte zela, hegan egin zuen. Estatu Batuetara migratu zen, New York-era hain zuzen. Hantxe ezkondu zen Arrazuako neska batekin, nire amama izango zenarekin, alegia.

Nire aitona-amonak “dreamers”, amesgileak izan ziren, Trumpek Estatu Batuetan sartzea debekatzen zien pertsonen antzera. Mundu Gerra zela eta hasitako familia Deustura itzuli zen. Gaur egun nire arbasoak bizi ziren aurrez aurre, Nerbioi itsasadarretik bestaldean, Olabeaga auzoko etxe albo batean hizki erraldoiez hitz bat dago idatzita: SOÑAR; agian “amets egin” idaztea ez zitzaien



<sup>1</sup> Deusto Argitaletxea, 2018, 97. orrialdean.

paretan sartzen eta.

Nire egitasmo pertsonalarekin batera bi agiri gordetzen ditut. Bata, Madrileko elkarte batera etortzeko orain bi ikasturte emaniko obediencia; bestea, nire aititak eta amamak, New York-eko Roosevelt Street 26. zenbakian kokatzen zen Parrochia Italiana di S. Gioacchino-n sinatu zuten ezkon ziurtagiria, 1910ko urriaren 22an. Nire erro eta hegoen zeinu dira bi dokumentu horiek. Eta arestian bezala horiei leial izanik jokatu nahi dut aurrerantzean, estreinatzean dagoen urte honetan, hain justu.

Eta, artikulu honi amaiera egokia ezarri nahirik, Argoitia anai-arrebek abesten zuten kanta hura, gazte nintzela ikasi nuen abesti hura, datorkit

burura:

*Amets, amets egin itsas gizona,  
amets, zure ametsa gerta leikela.  
Berriz etorriko zera Ondarruko kaiara,  
han daukazu maitea, itxaroten dezuna,  
berriz etorriko zera, zure txaluparekin,  
han daukazu maitea ta bihotza (2).*

Espero dut, geurtz, Ondarru kai existentziala non dagoen jakitea. Eta gauza bat bakarra opa dizut, zuri, irakurle horri, gure ametsak partekatuak izatea, zeren horrela ametsak errealitate bihurtzen baitira. *Bakarrik egiten duzunean amets, amets bat besterik ez da; besteekin batera egiten duzunean amets, errealitatearen hasiera da.* Helder Camara-k dicit.

## ZAHARTZARO DUINA

Joxe Agustin ARRIETA

### Zahartzearen izaera

Urtebete luze pasa da jubilatuta nintzenetik. Erretiroduna naiz. Tarteka-marteka horrelako gogoeta txepel batzuk idazten ditut. Azken bolada honetan gai berdinarekin nabil. Guztiok dakizkigun gauzak dira: aberatsa ez dela gehien daukana, gutxien behar duena baizik; edota amodioa ilargia bezala dela, hazten ari ez denean murrizten ari dela. Guztiok dakizkigun gauzak dira. *Ihintza* aldizkariko irakasle, irakasle ohi eta ikasleek eta ikasle ohiak ongi dakite zer den zahartzea. Batzuk geure haragian bizitzen ari garena eta besteek bere aitona-amonon bizieran ikusten dutena.

Zahartzarora beti martxan dago, ezin geldirik egon, pixkanaka beti aurrera egiten du. Ezin dugu hau ahaztu, ezin dugu uxatu. Bakoitzak bere erara bizitzen du zahartzea, baina egi zuzena hau da: bizitzen den bezalaxe zahartzen da. Badakit era eta mota askotako aitona-amonak ditugula: petralak eta abegi onekoak, bakartiak eta lagunarte zaleak, goibelak eta alaiak, fidagaitzak eta fidakorrak, berekoiak eta esku zabalak. Ze garrantzia duen duintasunez zahartzea eta bizialdiaren azken txanpa, txukun eta pozkarioz ematea. Agian ez zara ados egongo, baina urtez beteriko adinera iristea ez da zorigaitza oparia baizik.

Zenbait gerontologoei entzun eta irakurri izan diogu: bizi bizitza, bizi zahartzarora gaurko egunetan,

bizi eginkizunean, ez izan traba-sortzaile eta urrutiratu bakardadetik... Mezuak, iradokizunak, erreguak. Zenbat horrelako! Alde batetik eta bestetik jasotako aholkuak luzatu nahi nituzke.



### Zahartze osasungarriko hainbat proposamen

Egia da esperientzia zabala behar dela honetarako, tori zahartze osasungarriagoa errazteko hamahiru aholku:

- Zaindu zeure gorputza, argi eduki burua. Jantzi zaitex txukun-txukun, apaindu zeure burua eta ibili.
- Kalera atera zaitex. Ez zaitex etxe barruan geratu. Gizarteratu: ibili, elkartu, biltokietan bildu. Ur geldia usteldu egiten da, eta mugitzen ez den makina herdoildu.

- Maita ezazu ariketa fisikoa zeure burua bezala. Jarrai ibiltari izaten: parte hartu “Mugi” edo “Tipi-tapa” bezalako esperientzietan.
- Bizi ohoretsu eta harro zeure bizierarekin. Ez bururik makurtu, ez bizkarrik okertu, ez hankarik arrastatu.
- Ez hartu zeure burua agure edo gaixo bat izango bazina bezala.
- Oroz gain, izan zaitez baikorra. Eman iritzi positiboak, hitz egin umore onez, alaitu zure aurpegia, izan zaitez atsegina. Zahartzaroa ez da urte kontua, aldarte kontua baizik!
- Izan aktiboa. Egin gauza probetxugarriak bai zeuretzat eta bai besteentzat.
- Jarrai lanean, beste erara noski. Lan egin eskuekin bezala buruarekin ere. Lana terapia bikaina da.
- Eutsi bizirik eta gogotsu giza harremanei.
- Bizi oraina. Izan itxaropen. Jakin bihar eguzkia aterako dela. Utzi atzoko eta iraganeko kontuak bestaldean.
- Ikas ezazu gauza on eta xumeak estimatzen. Horrela konturatuko zara oso gutxi behar dela

pozik bizitzeko eta besteak pozik edukitzeko. Ez izan apetatsu, izan esker oneko.

- Pentsatu egunero zer aldaketa txiki egin dezakezun zeure ingurua zaintzeko eta saiatu berori betetzen.
- Kontuan har pertsonak direla lehenengo, eta uler ezazu ezin dela dena zientzia edo teknologiaren bidez konpondu.

## Eskerrak emanez bizi

Egia da gure gizarte postindustrialean gozamenak baduela bere tokia, gero eta gehiago, baina gaur beste gozamen iturri hauek dakartzat: elkarrekiko maitasuna, adiskidetasuna, barruko bakea, lasaitasuna... Badakit betikoak direla, gaztaroan edo helduaroan bizitakoak, baina orain astiro egin daitezkeenak.

Zahartzaro duina eta zahartzaroaz gozatu, eta duintasunez zahartu. Neguan sartuak gara, agian Vivaldiren *Lau urtaroak* musika entzutea ez da aholku txarra izango. Gozatu ere musikaz, busti eta blai musikaz. Orain bai, bukatzen dut maisu baten hitzekin: *Maitasunak agintzen duen lekuan sobera daude legeak* (Platon). Noski, Platon jauna, bai legeak eta baita ajeak ere. Izan zoriontsu!!



Nire talaiatik

## IBILIZ EGITEN OMEN DA BIDEA

Juan Luis URMENETA

### Urtarrilak 19: *Danborrada*.

Behin eta berriro etorri zait azken boladan aldizkari honen arduraduna ni zirikatzeraz, animatzeraz, bultzatzeraz ... edo zerbait idazteko asmorik ba ote nuen galdezka. Nik ezetz, inspiraziorik ez nuela, musa guztiek utzita nindukatela. Orduan konturatu nintzen idazteko ezer ez izateak, idazteak berak ematen didan min berbera sorrarazten zuela nigan. Hain aspaldi ez den garai batean nire buruarekin hartu nuen konpromisoa bete ezinak nigan sortzen zuen mina, agian.

Lope de Vegak soneto bat zertan datzan azaltzeko sonetoa idatzi zuen. Ez naiz Lope eta ez dut nire irakasle sena atera nahi, baina idazteari buruz idazten hasi naiz jakinik idatziz ikasten dela idazten edo, Gandhiren esaera ezaguna manipulatu, ez dagoela idazteko biderik idaztean datzala bidea baizik.

### Urtarrilak 20: *Danborrada gehiago*.

Beldurrak gaintitu behar izan ditut segitzeko. Ipuin idazle izan nintzenean mahai inguru batean galdetu ziguten ea idazleak kontuan hartzen duen irakurlea. Ez dakit zer erantzun nuen baina beldur naiz nire testu hau zakarrontzira ez ote den joango irakurlearen atsegina lortzen ez badu. Azken batez idazten badut ez da nire atseginerako irakurlearenerako baizik. Berriro esan beharko dut min ematen didala idazteak eta nolabaiteko militantzia hutsagatik egiten dudala.

Forma ez da nahikoa, esaten denak interesik sortzen ez badu edo berez ez badu, alferrikako lana izan daiteke. Jakin nahi nuke zer egin behar den idaztean plazera aurkitzeko! Horregatik beti espero dut norbaitek atseginez irakurtzea nire testuak. Baita oraingo hau ere.

### Urtarrilak 21: *Bada ezpada ...*

*Bihotzak mugitzen ez dituen sermoiak ipurdiak mugitzen ditu* esaten zuen nire herriko apaiz predikari batek. Beldurgarriak izan ohi dira alde aurretik prestatu gabeko sermoiak. Ez ote da gauza bera gertatuko nire idazlan honekin? Oinarrizko ideiarik gabe hasteak amaierarik gabeko zerbaitera eraman gaitzake. Diotenez, Pio Barojak planifikatu gabeko nobelak idazten zituen. Ez naiz Baroja. Horregatik okerrago den zerbaiti ekin diodanean, inolako gairik gabe idazteari alegia, nora doan ez dakienak iristeko aukerarik ez duela jakinik ekin diot. Beraz hobe izango dut ahalik eta azkarren amaitzea.



### Urtarrilak 22: *Gauean hobe irakurle izatea idazle baino*.

Sekula egiten ez dudana zerbait egitera ere behartu naute lerro hauek: gauez "lan" egitera. Horregatik paradoxa moduko nahaspilan ikusi dut nire burua: nik egun argiz ikusten ditut gauzak garbiago baina oraingoan badirudi iluntasunak ekarri didala argia. Beraz, hau amaituta gaur oheratzen naizenean nire buruari esango diot: *Ez dadila errepikatu! Hobe duk gauez zerbait atsegina irakurri*. Gaur, behintzat, Carvalho ikerlaria zain daukat.

## **Sakoneraren min**

Pello OTXOTEKO

Patxi Ezkiagaren *Blues bat bizitzari* liburuaren aurkezpenean esandakoa (2018.11.09)



**Z**auria zen bere hitz gakoetako bat. Pertsona arduratsua zelako Patxi eta sentibera, sentibera oso. Eta bizitzaren zauriak ongi baino hobeki identifikatzen zituen berak. Bere begirada arakatzaillea zen, eta alaia, oso alaia, Ilusioaren Blues-a zerion haren begiradari. Bere arnasa, ordea, guztiz benetakoa zen, hitzaren esanahia aise gainditzten zuen arnasa genuen berea, Jazz-aren perfumaz apaindua. Bestalde, bere lumaren hiztegia Soul sakonenaren kanoikaden antzekoa zen, hitzen aukeraketa zorrotzak eta mezuaren aberastasunak murru gogorrenak zulatzeko gai ziren.

Benetako poeta zen Patxi, idazteko eran eta izateko eran, izan ere, benetako poetek hitzari bizia ematen baitiote, pentsamendua kantua bihurtu eta gizatasuna dantzan jartzen dute. Horixe genuen Patxi, eta are gehiago, maitasunaren profeta. Jose Luis Padronek Lizardiren baratzean esan zuen bezala dena maitatzen baitzuen Patxik, arima zuen guztia eta arima ez zuena ere bai.

Bere hitzetan :

*Amodioak ukitzen gaituenean  
bakarrik da egiatzkoa  
gure mundua.*

Eta hala egiten zuen bere bizitzako arlo guztietan. Bere ekintza guztiak lilurazko magia batez janzten zituen, eta gertu geundenak magia horretaz konturatzen ginen.

Jakina da naturarekiko bere maitasuna, bere lilura, eta debozioa esango nuke nik. Askotan kontatu zidan nola besarkatzen zituen arbolak, eta guzti hau era nabarmen eta argian islatzen da bere poesian. Patxik modu erraz eta benetakoan uztartzen zituen gizakiaren sentipenak eta naturarekiko bulkada hau, kosmikoa denaren eta afektiboa denaren fusioa lortzen zuen, maitasunaren lokarri amaigabearekin guztia lotzen zuelarik.

Bere hitzak berriz ere:

*eta mundu horren kronikalari  
izateko sortu da maitaleen  
bihotza.*

Zeren Patxi bizitzaren maitalea baitzen, maitale sutua, sutua, purua eta fina. Bere begirada arakatzaillea ahalik eta leku gehienetara iristea saiatzen zen, musikaz eta argitasunez, hauxe zen bere Lau haizeetako Jazz-a.

Musika asko dago bere lerroetan. Musika pausatua, ezta eta alaia. Esperantza purua darion musika da bere poesia:

*Ezen,  
gaua datorkeenean,  
hutsik gabe  
besarka gaitzakeen  
harekin  
egiten baitugu  
amets.*





Oraindik gogoratzen dut iazko irailean egin nion elkarrizketa bukatu genuenean esan zidana: Entzun al duzu Leonard Cohen-en azkena, Pello? You want it darker, zoragarria benetan, entzun zazu! Eta gaur, hemen, esango dut, hau dena, Patxik gidatuta idatzi dudala, Cohen-en musikaz lagundurik idatzi baitut.

Gure poesiaren bluesman autentikoena da Patxi. Zeren Patxik ongi baitzekien partitura, hau da, hitza, eta soinu interpretatuak, hots, sentipenak,

bereizten, baina era berean elkartzen, uztartzen eta batzen, eta hau guztia Jazz-aren eta Blues-aren akordeez horniturik paperean gauzatzea lortzen du lerro poetiko gisara.

Eta Jazz-aren eta Blues-aren lurrinetan Patxik bere sentipen eta pentsamenduen barnean murgiltzen gaitu. Batzuetan Jazz-aren misterioaz melodia ezezagunetan kulunkatzen gaitu hitz sakon eta zorrotzekin; besteetan, Blues-aren malenkonía minberaz geure erraietako egiak pizten ditu eta sakoneko minak garbitu. Musikaz beteriko lerro poetikoak dira eskaintzen dizkigunak.


Hauxe eta gauza gehiago topatuko ditugu liburu eder, alai eta sentibera den honetan, Blues bat bizitzari.

Utzidazue bukatzen orain arte argitaragabea den bere azken poemako lerro batzuk irakurtzen. Benetan guztiz positiboak dira. Nik irakurri dudan gauzarik positiboetariko bat txinatar esaera hura da: Hobeto poxpolo bat piztea, iluntasuna madarikatzea baino.

Patxi areago doa, eta honela esaten digu:

*Eta sinesten dut iluntasun guztiak urratzea  
baino garrantzizkoagoa dela  
bidean aurrera pausoak ematea.*

Zoragarria benetan.



## **Blues bat neguari**

Anjel LERTXUNDI

**S**anskritoko *kri-* aurrizkitik datoz krisia, kriterioa, kritika, kristala bezalako hitzak. Kriseilua (eta gaztelaniazko *crisol*) ere halaxe. *Krisalida* ere bai nonbait. Nolanahi ere: aipatu *kri-* atzizkiak berrikuntza, transformazioa, berpiztea bezalako egoerak iragartzen ditu. Patxi Ezkiaga Lasaren *Blues bat bizitzari* azken-poema bildumaren azken parteak *Krisalida* du izena. Poetaren testamentu literarioa da eta, azken agurra baino, fededun batentzat heriotzak dakarren transformazioa iragartzen du: krisalida bat da bizitza, krisian bizi gara, heriotzaren ostean ba omen dago beste bizitzarik; tximeletarena baino are hegaldi fin, arinagoko estadio bat, espirituala, ederrez eder dena.



Testamentu poetiko bat da Ezkiagaren liburua bere osoan, *Krisalida* zatia bereziki, eta naturaren eta gizakiaren arteko urrutiramendua markatzen du. *Iritsi da negua* du izena *Krisalida* saileko lehen poemak. Hartan pausatu naiz krisalida osteko tximeleta lore ederrenetan pausatzen den antzera. Hauta nezakeen beste poemaren bat, liburua ugaria baita edertasunean, baina neguari eskainitakoa dut geltoki. Muga betean dago negua, mundu zahar ajetsua klausuratzen ari da eta bizi berria iragartzen.

*Iritsi da negua.*

*Horixe diote pinuen eta ezkien karraskak,  
orbelaren dantzak, lurrean.*

[... ... ...]

*Guri ere gustatuko litzaiguke  
norbaitek entzutea gure kanta.*

Poetak pinuen eta ezkien karraskak entzun eta interpretatu ditu: guk ere nahi genuke norbaitek entzutea gure kanta. Horra xalo itxurako konparazio eder bat. Baina ez da lañoa poemaren lehen partean *ezkiak* aipatu izana, zeren prebisibleena baitzen poetak *Ezkitik Ezkiarengana*, naturatik poetaren nira, egitea txango: poetari ere gustatuko litzaioke norbaitek entzutea bere azken kanta, gustatuko litzaioke naturak lortzen duen oihartzuna izatea bere hotsak ere. Baina konparazioaren bigarren partean, poetak jauzi egiten du logikaren langa gainetik eta ez da bere nia mintzatzen zaiguna, gu plural bat baizik. Gizakia bere osoan, agian. Naturarengandik urrutiratu izanak tristatzen duen gizadi parte, beharbada, poeta ere barne. Poesia bera, akaso, damututa natura abandonatu duelako.

Hiru aukerak dira posible, zeren poeta ere naturaren parte baita, noski, baina naturatik urruntzen eta urruntzen joan den gizadiaren parte, hori da drama. Naturaren alde kontzientea, arrazoimenari esker, naturari bizkarra erakusten joan da gizakia gizaki denetik eta bere ustezko nagusitasunaren eskutik. Baina Ezkiaga poeta naturazalea ez dator bat gizakiak naturari erakutsitako eldarnioarekin, eta naturaren hotsa hitz bihurtzen —bereganatzen— saiatu da. Hala dio *Agurra* poeman:

*Mundua sentitzeko modu baten ebanjelariak  
egin ditut mendiak, ibaiak eta loreak.*

Baina ez da krisirik —oinaze fisiko eta espiritualik— gabeko bidaia bat izan. *Minak* poeman dio:

*Minak eraginda bidean jartzen denak  
hurbilago ikusten du zeruertza.*

Mundutik mendira itzuli da poeta oinazetua natura —dagoeneko neguan— ebanjelarizat harturik. Leteren negualdiko irudimena haurtzaroko Bianditz elurtura itzuli zen bezala, gutxi-asko.

Itzulerarik gabeko mendira igo da Ezkiaga ere, eta ibilaldi aldapatsuko arnasestu poetikoak asko du metafora poetiko-moraletik: bizitza ulertzen saiatzeko aukera bakarra da bizitza; inoiz esan ez dena —esaterik lortuko ez duguna— bete-betean eta garden-garden esateko ahalegin beti berritua da poesia.

## “Azken deia”

Iñaki Zelaia eta Pello Esnalekin hizketan,  
lokin Otaegiren bertso bati buruz

**T**xori txiki batek esanda jakin genuen nola Iñaki Zelaia eta Pello Esnal ari ziren elkarlanean lokin Otaegiren bertso bat jorratzen. Onena iruditu zitzaigun zuzenean jotzea Iñaki eta Pelloengana, eta zuzenean galdetzea zertan ari ziren. Horrela sortua da hiruren arteko hizketa hau.

**Ihintza:** Zertan ari zarete? Nola sortu zen asmoa?

**Iñaki:** lokin hil eta berehala Juan Carlos Orús-ek hain gertukoa nuen Anaia honen bizitza idaztea eskatu zidan. Bizitza “ofiziala” esan dezagun, Anaia guztiei eskaintzen zaien modukoa: erdaraz eta ez luzeegia.

**Ihintza:** lokinen bizitza... erdaraz?

**Iñaki:** Bai. Hala ere, azkar adostu genuen beste biografia bat ere idatziko nuela, kasu honetan euskaraz, eta neuk ikusiko nuela zer neurritakoa. Baina hori beste kontu bat da. Goazen, bada, harira. Paper zaharrak miatzen ari nintzela, ahaztuta neukan lokinen bertso batekin egin nuen topo. Motza bertsoa baina mamitsua, eta idatziko nuen bizitzari bukaera emateko egokia. Hala ere, bigarren erroak arazoa sortzen zidan, zegokiona baino luzeegia baitzen, eta itzulpena ez zitzaidan hain erraz ateratzen. Orduan Pelloengana jo nuen.

**Pello:** Bai. Horrela eskuratu nuen lokinen “Azken deia” bertsoa. Honela dio:

“lokin laguna hiltzera doa”  
jakingo duzun momentuan  
ez niri etorri, arren, laguna,  
aurpegi hits, hitz lantuan.  
Sorkunderako deitzen nautela  
zure aurpegi gozuan  
ikus dezadan, egizu arren,  
muin bat eman ez musuan.

Nabarmen zegoen bigarren lerro hanka-luzearena. Silaba bat soberan du «jakingo duzun momentuan» horrek. Eta erraz konpon zitekeen «heltzen zaizun momentuan» edo antzekoren bat jarritz haren orde. Bestalde, «jakingo duzun» horrek ere min ematen du belarran; «jakiten duzun» beharko luke, ezta?

**Ihintza:** Gero, itzulpenarena zegoen...

**Pello:** Eta itzultzeko, jatorrizko testua ulertu behar duzu; edo, bestela esanda, interpretatu. Izan ere, hasteko, bada bertsoan hitz bat traba egiten duena; edo deigarria dena, behintzat: «Sorkunderako». Horren orde, «pizkunderako» espero zitekeen. Baina «sorkunderako» dio, eta hori errespetatu beharra zegoen. Eta argi bila hasi.

**Ihintza:** Argi bila, non?

**Pello:** Testuan bertan. Bada bertsoan beste kontu deigarri bat ere; agian, deigarriena: amaierako «muin bat eman ez musuan» hori. Hasteko, nori ez dio gogorarazten Gabon-kanta zoragarriaren «apa eman ez musuan» amaiera zirrargarria? Lokinek, noski, amaiera hori abiapuntu hartuta osatuko zuen bertsoa. Eta, horren harira, piezak uztartzen hasten dira: Gabon-kanta, sehaska-kanta, sorkundera...

**Ihintza:** Baina nola segi?

**Pello:** Niri, aurreko hitz horien harira, Genesi – Hasiera– liburuaren pasarte ezaguna etorri zitzaidan gogora (2, 7): «Orduan, Jainko Jaunak lur-hautsez gizona moldatu zuen; sudurzuloetan bizi-arnasa putz egin zion, eta gizona bizidun bilakatu zen».

**Iñaki:** Lotura ausarta, ezta?

**Pello:** Bai. Baina lokin ezagututa, ez zait horren ausarta iruditzen. Hala ere, ez dut ezer inposatu nahi. Horrelako irakurketak beti zabalik geratzen dira. Testuarekin koherente izatea da kontua. Eta niri, behintzat, koherente samarra egiten zait dena. Gainera, horrela argituko litzateke sorkunderarena ere. «Berpiztu» ez baina «sortu» izango litzateke. Baina oraindik bertsoaren azalean gaude. Izan ere, musu bat eskatzen dio lokinek lagunari; musu bat, «zure aurpegi gozoan Sorkunderako deitzen nautela ikus dezadan».

**Ihintza:** Ispilu izatea...

**Pello:** Horixe! Eta horrek testutik ateratzen nau, ni behintzat. Testutik atera eta zortzi urte atzera eragin. Aldizkari honetan bertan kontatu nuen (85. alean). Medina de Riosecon ginen, urte hartako *Edades del hombre* delako erakusketa ikustera joanda. Eta pietate baten aurrean, gidariak zer esango eta: “Deigarriak dira amaren eta semearen gorputzen

proporzioak; ia itxuragabeak... Erreparatu amaren aurpegiari. Aurpegi gaztea da: neskaxa batena. Besoetan du seme hila. Semearen heriotza onartzen duenean, gaztetu egiten da ama, biziberritu. Horixe da dena. Onarpen horretan dago piztuera. Pietatea da piztueraren lehen irudia...". Egingo nuke lokinek ere antzeko ispilua eskatzen duela, ondoren datorkion sorkundea aurreikus dezan...

**Iñaki:** Urrutira joan gara, ezta?

**Pello:** Horrelako irakurketak eragiten dituzte testu beteek. Azken batean, norberak osatu behar du bertsoa, poema edo dena delakoa. Eta ezin beteagoa iruditzen zait lokinena. Baina badakit, bertsolari-txapelketa batean, ez lituzkeela bost puntu ere jasoko hamarri buruz. Bateko hanka-luzea, besteko errima pobrea. Dena esanda, gaur egun ez dira horrelako errimak erabiltzen. Izan ere, gehiago dira bi errima –batetik, «momentuan» eta «lantuan»; bestetik, «gozuan» eta «musuan»—. Eta, gainera, zigortu egiten dira «gozuan» / «gozoan» bezalako lizentziak.

**Ihintza:** Beraz, bertso pobrea...

**Pello:** Formaz, bai. Eta baldin eta bertsoa bada. Baina ez dut uste lokinek horrelako txikikeriei erreparatzen zienik. Halako indarra duen testu bat sortu eta txikikeriei begira gelditu? lokin hori baino ausartagoa zen.

**Ihintza:** Hori, testuari buruz. Baina ba al dugu testuinguruaren berri? Ba al dakigu non, noiz, zergatik, zertarako... sortu zuen lokinek bertsoa, poema edo dena delakoa?

**Iñaki:** Testu hau 1987. urtean Donostiako La Salle Pastoraltzarako Idazkaritzak argitaratutako "Erne" liburuxkatik aterata dago. Hala ere, hitzaurrean "1985-V-13" data agertzen denez, 1984-85 ikasturte bitartean idatziko zuela suposa dezakegu. Otoitz-bilduma hori Legazpiko sendotzako taldekideei erantzuna da, bilera batean heriotzatik gerokoei buruz galdegin baitzioten.

**Pello:** lokin poeta mistikoa...

**Iñaki:** Bai. Eta kasu honetan bederen, Leonardo Boff-en laguntzaz; hitzaurrean bertan ideia garrantzitsuenak haren "Mintza gaitezen beste bizitzaz" liburuan oinarrituta daudela adierazten baitigu. Baina barneratze-prozesua, kontenplazioa eta ondoko sormen poetikoa lokinenak bereak direla ez dago zalantzarik.



# Salletarron topaketa: La Salleren lidergoa

Jose Manuel AGIRREZABALAGA

**G**ipuzkoako salletarrok gonbitea jaso genuen topaketa batean parte har genezan Irungo La Salle enean. Gure Salletar identitatea suspertzea zen topaketaren xedea La Salleren ibilbidearen argitan, haren heriotzaren Hirugarren Mendeurrena ospatzen ari garen urte honetan.

Anaiak eta sekularrak geunden gonbidaturik topaketara urtarrilaren 26an. Eta halaxe 55 bat lagun bildu ginen, 35 bat Anai eta 20 bat sekular. Goizez izan zen, 10etatik 13era.

Topaketa hau 2017ko azaroan Gipuzkoako Salletar Elkartearen lehenengo zonalde-topaketak abian jarritako ekimenetako bat da. Bigarrena genuen, lehena urriaren 19an egin baikenuen Zarautzen. Ekimena abian jartzen jardun ginenok garbi genuen Gipuzkoan bokazio salletarren erronkari erantzuteko eta salletar identitatea suspertzeko garrantzizkoa zela Anaiei eta Sekularren arteko topaketak hemen eta euskaraz egitea, Sektoreko beste topaketekin koordinatuz.

Topaketak hiru atal izan zituen:

- Formazioa, La Salleren lidergoari buruz.
- Atsedenaldia.
- Ospakizuna.



La Salleren lidergoari buruz Jon Lezamis Anaia jardun zitzaigun luze eta jakinduria handiz, haren bizitzako azken bost urtetan, 1714-1719 urtetan, nola jarraitu zuen liderra izaten misioaren zerbitzuan azalduz. Gutxi aipatzen diren urteak omen dira baina ez horregatik garrantzirik gabeak. Izan ere garai hark

irakurketa kronologikotik at beste irakurketa batzuk ere baditu. La Salleren bizitzako azken etapa hura, ahuleziaz, hauskortasunaz, zaurgarritasunaz eta paradigma aldaketaz identifika dezakegu eta horrek pista dezente eskain diezazkioke bizi dugun egungo salletar egoerari. 1714ko abuztuan Parisa itzuli eta Anaidiaren gidaritza bere gain hartu ondoren, La Salle saiaturiko zen lidergoa eta Anaidiaren gidaritza Anaiei eskuetara eskualdatzen eta bera beste edozein Anaia bezala izaten elkartean. Gurari hori 1717ko maiatzeko lehenengo Kapitulu orokorrean beteko zen, Anai Bartolome Anaiburu orokor izendatua izan zenean. Hala ere La Salleren lidergoa ez zen bukatu, beste mota batekoa bilakatu baizik: Anaiei sendotasun- eta barnetasun-bideetan laguntzen jarraitu zuen, misioaren zerbitzuan beti: Anaidiaren espirituzko oinarriari arreta berezia emanaz eta Araudia eta Eskoletako gida liburua berrikusiz... Gaur egunerako erronka: nola izango da kalitatezkoa haur eta gazteentzat gure presentzia?

Salletarron arteko geure topaketak atsedenaldira jarraitu zuen mokadutxoak edota kafea partekatuz.

Azken ospakizunerako elkarri begira eseri ginen zirkulua eginez, erdian genituela 300 urtemugako logoa, zuzi piztua eta "La Salle gara" teila moduko ikurra. Haserako formazio-saio luzean entzundakoa barneratzeke unea izan zen abestien eta Berri Onaren argitan. Galdera bati norberak idatziz erantzutea proposatu zitzaigun, hitz gutxitan. Ondoren talde txikitik partekatu genituen erantzunak eta erantzun bateratu bat idaztera iritsi. Galdera honako hau izan zen: *Etorkizunari begira, zure egoeratik, zer?* Hitzaldiko erronka islatzen zuen



nolabait galderak. Hara, taldetxo bakoitzaren erantzunak jarraian:

- *La Salle gara eta elkarrekin gozatu.*
- *Ilusioz eta sormenez, irakasleekin, bide berria ireki ikasleei, elkartean.*
- *300 +, irribarrez, etorkizunean sinetsi.*
- *Ingurura begiratu eta aurrera egin!*
- *Bizitzaren memoria egin, bizitzan aurrera egiteko.*
- *Ilusioz eta gertutasunez, garaietara egokitu. Elkarrekin bidea egin.*

- *Besteentzako pertsonak IZAN elkarrekin, La Salleren antzera.*
- *Hemen nauzu geroa maitasunez eraikitzen.*
- *Zure soinuaren doinuaz, gure bizitzarekin, haurren bihotzak ukitu.*
- *Elkarrekin presentzia kontziente bati eutsi, maitasunean biziz.*
- *Fedez beteta besteei lagundu, maitatu.*
- *Fedeari eutsi!*

Ordu bata jota etxeratu ginen bazkaltzera barnepozez beste salletarrekin bizi izandakoagatik.

## *Kontu kontari*

# ASPALDIKO PARTEZ

(Oroituz)

Joxe ERTZIBENGOA

**G**eltoki batean nago. Berdin dio zein geltokitan. Etxetik hurbil dagoen geltoki txiki batean oraingoan. Goizeko zortziak eta hamaika dira geltokiko erloju biribilean. Ongi markatzen du ordua erloju biribil horrek, eta trenak badaki ordu horretan iritsi behar duela jendea zain egongo delako. Trena, euskal trena, heldu da, prest dago, ia hutsik dago, nik ez dut arazorik izan eserlekua aukeratzeko. Ba al dakizue jendeak, oro har, eserlekuak aukeratzeko dituela eta nahi duena aurkitu ezean edonon esertzeko ohitura duela? Trena kasik hutsik dago, horregatik askatasun osoa izan dut eserleku egokia hartzeko. Lo eginez, hots, lotan, joateko asmoa daukat. Bai. Badakit bidaia luzea izango dela. Nire ustez bi ordu eskas izango dira nire helmugara iristeko. Nire helmuga Gaminizen dago. Han jaitsiko naiz trenetik eta gero oinez abiatuko naiz. Ez dakizuela Gaminiz zer den? Bada, Bizkaian dagoen herri bat dela esango dizut. Orain Plentzia deitzen diogu, eta itsas bazterrean kokatuta dago. Ez zaizkit erkaketak gustatzen, baina esango nuke ezeren okerrik gabe, kristoren antz handia duela Donostiako Kontxa deitzen den inguruarekin. Donostia konparaezina da, konforme, orain gutxi Europako hondartzarik onenaren titulua jaso du gainera, beraz, chapeau Kontxari!

umelean txalupa, txanel eta arrantzuntzi txikiak daude geldirik. Ederra, zoragarria eta liluragarria da paisaia, oso naturala. Gustagarria. Jendeak ez ditu erabakiak hartu oraindik. Etxean dago beharbada, baina laster hasiko da egunak eskaintzen duen distiraz gozaten. Laranja baten xafla dirudite Gaminizko eta Gorlizko hondartzek. Han bai, handik ibiltari batzuk topatu ditut harat-honat. Agurtu ere bai. Haiek ez dira igandekariak, mendizaleak direla esango nuke, ezberdinak baitira mendizaleak eta igandekariak, azken hauek ez dute agurtzen maiz eta heldxoak bezala pasatzen dira baten aldamenetik. Kezkatuta gelditzen naiz halakoen aitzinetik igarotzerakoan. Zerbait falta zaiela iruditzen zait. Zer egingo diogu, txo! Ia ustekabean hondartzen beste muturreraino iritsi naiz eta han olatuen orroa entzun dut. Gelditu naiz aparta baita olatu haserrearen orroa, eta kresala, eta aparra, eta bitxa, eta handik datorren haizea, eta arroken aurpegia, bisaia eta irudia, bai horixe. Argazki bat edo beste ere egin dut. Gizon bat dago zutabe baten gainean, ez dakit zein den baina berdin dit. Han dago eta zerbait egingo zuen gure mutiko galantak. Orduz gero, nire segapotoan dago, ez dakit noiz arte. Segapotoa esanda norbait eskandalizatu bada, barka, mobilean edo xakelekoan esan nahi nuen, hala hobeto?

Umore onez noa garai bateko bidean sartu naizelako okerrik egin gabe. Aldapan gora hasi naiz.

Butroe ibaiak apaintzen du oinez ibili naizen bidea. Mareabehera dago. Irrioak egiten duen bide

Gorantz noala bidea ezaguna egiten zait, ez da batere aldatu, ordukoa da, harrikozkor bertsuak, euskarri berak, sastraka zaharrak, txori batzuen kanta ezaguna, kukuarena ez, kukua ez da handik barrena sartu oraindik. Kontua da basotik barrena noala, dena niri bidea markatzen. Lokatzik ez, baina harkozkorak bustita daude eta erne ibiltzeko hots egiten didate. Hola beharko, esan diot nire buruari. Banoa Billano Itsasmuturraren aldera, Itsas Argira, kalatxori moko horidunak ibiltzen diren esparrura. Oraingoan, ordea, ez dut kalatxoririk ikusi. Non ote dira? Desagertu ote dira? Oraingo atmosferan ez al daude eroso? Norabait jo ote dute ikusirik hemengoa ez zaiela komeni guri komeni ez zaigun bezala zaborra eta ezta zabortegiak ere? Litekeena da. Batek daki. Kalatxoriek ere badakite nondik nora jo komeni zaienean eta beste erremediorik ez dutenean. Bizkorrak, zuek! Biba zuek!

Itsas Argia tente-potente agertzen da Itsas muturrean. Zuri-zuri dager. Lau pertsona ikusi ditut han itsasoari so. Zer dakusate? Nora ari dira begiratzen? Ez dakit, ez diet galdetu, baina igartzen da barneko ateak ireki dituztela eta bihotzaren mintzoari entzuten diotela galdera batzuk egiteko asmoz. Asmatu ote dute? Nik gauza bera egin dut eta niri aitzinera joateko esan dit bihotzak. Nora? Armintzara, bai Armintza herri txikira, beste era batera esanda Lemoizera, bai Lemoiz ospetsura. Dakizuenez, aspaldian ez dago ezer onik han, Lemoizko zentral nuklearra eraiki nahi izan ziguten kala eder hartan. Barka, badago zerbait, porlan pila bat usteltzen, izorratzen, kutsatzen eta nahi bada, zenbaitzuen akatsak ezkututzen. ETAk eskua sartu zuen behar ez zuen lekuan, baina herriak bai, herriak behar zuen lekuan esku hartu zuen eta orain dagoen egoeran utzi zuen. Entzun dut edota irakurri zerbait on egin nahi dutela hor. Egingo ahal dute!

Ermuamendira iritsi naiz. Ermua izenarekin dago egina gerra garaiko gotorleku txiki bat, San Markosekoa baino txikiagoa, ehun aldiz txikiagoa, baina leku estrategikoan kokatua hau ere. Argazki bat eta martxa. Niri ez zaizkit gotorlekuak, ez gerrak, ez harrokeriak, ez handiusteak, ez militarrik, gustatzen, ez hemengoak eta ez Trafalgoak, ez inongoak, eta kitto. Ez esan niri gero ni defenditzeko daudela: pikutara horiek guztiak, denak antzarak

ferratzerak, utz gaitzatela bakean betiko. Herioak dituen lagunik zuzeneak heriotzak eraman ditzala bere hilerrira gu bertan lagata, entzun?

Eukaliptoak daude nire bidean. Goitik behera noa eta zuhaitz-mota honen usainez gozatzen dut. Badakit ekologistek ez luketela hainbeste gozatuko, baina zer egingo diogu ba. Aspaldian erremedio gisa landatu ziren onena zela uste zelako, gaur egun kaltegarriak omen gure lurrari eusteko, etabar luze baterako. Bego delako eztabaida dakitenentzat, ni ezjakina naiz kontu honetan, baina gozatzen noa hedatzen duten usainaz.

Hurbildu naiz Armintza herri txikira, baina oso ederrera, jakina. Badakizue esaera hura, ezta? Txikitasunean handi eta handitasunean txiki. Halako zerbait. Armintza herri txikiena ez agian, baina txikienetakoa bada Bizkaian bederen. Ikusgarria da. Etxetik itsasora ehun metro ez daude eta etxetik portura ezta berrogei ere. Ez al da munduan egon daitekeen gauzarik zoragarriena halako paisaia, natura eta mundua hain espazio murriztuan izatea eta zu zeu horretaz gozatzea? Nora joan beharko nuke hau baino gauza liluragarriagorik erdiesteko? Esadazu badakizu. Ez dut inoiz beste edozerekin trukatu. Tabernatxo batean sartu naiz. Erdaraz ari dira, baina nik euskaraz eskatu dut eta euskaraz ihardetsi didate: hastea bezalakorik ez dago eta hori norberaren eskuetan dago. Utikan lege ofizialak euskaraz bizitzeko. Norbera aski da nahi izanez gero. Biba lehenengo hitza euskaraz botatzen dakigunok, zorionekoak.

Egun espeziala eman dut garai bateko ibilbidea eginez. Arestian esan bezala gozatu dut, barrutik gozatu dut eta kanpotik miretsi, barrutik sentitu dut eta kanpotik ederretsi, barrutik idatzi dut eta kanpotik gonbidapena luzatu. Gehiago nahi? Zoazte bertara eta gero esan.



## EZ DA EZ

Irungo La Salle - LH 3A

*RAP letra hau LH 3.A gelakoek asmatu zuten joan zen ikasturtean Arte Hezkuntzako proiektu baten azken produktu bezala. Aurten 4.A gelan daude.*

Irungo La Salleko neskek eta mutilak  
batzuk daukagu alua ta besteak zakila.  
Guri ez zaigu axola, ta ondo moldatzen **gara**  
mutilak edo neskek denok berdinarak **gara**.  
Baina gauza batzuk, ez ditugu ulertzen  
emakume bat gaizki dutenean tratatzen  
amonak eta izebak, ahizpak edo arrebak  
emakume guztiek dauzkate eskubideak.  
**Ez da ez, ez da ez**  
**eraso sexistaren aurka gaude.**  
**Ez da ez, ez da ez**  
**biolentzia matxistaren aurka gaude.**



Lurralde batzuetan neskek ezin dute  
eskolara joan eta hasi ikasten.  
Nesken eskubideak ahaztuta daude  
eta gizonen menpe bizi behar dute.  
Sexu indarkeriaren aurka gaude  
emakumeak hiltzea onartu **ez**.  
Eraso sexista bukatzea nahi dugu  
ta emakume guztiak izatea zoriontsu.  
**Ez da ez, ez da ez**  
**eraso sexistaren aurka gaude.**  
**Ez da ez, ez da ez**  
**biolentzia matxistaren aurka gaude.**

Mutilentzat arrosa edo neskentzat urdina  
neskentzat baloia ta mutilentzat panpina.  
Kolore guztiak gustatzen zaizkigu  
jolasa guztietan jolasten badakigu.  
Joan zaitezke, nahi duzun bezala,  
gona jantzi eta margotu ezpainak,  
praka estuak, erakutsi sabela  
baina gure gorputza beti da gurea.  
**Ez da ez, ez da ez**  
**eraso sexistaren aurka gaude.**  
**Ez da ez, ez da ez**  
**biolentzia matxistaren aurka gaude.**



Gay edo lesbiana izatea  
ez mutil, ez neska sentitzea.  
Errespetatu ditzagun gorputzak diren bezala  
jaio garen bezala, onartu behar gara.  
Puntu lila, puntu morea  
gure gorputza beti da gurea  
puntu morea, puntu lila  
aski da eraso sexista  
**Ez da ez, ez da ez**  
**eraso sexistaren aurka gaude.**  
**Ez da ez, ez da ez**  
**biolentzia matxistaren aurka gaude.**



# ALEJANDROREN ISTORIOAK

Naia HERNANDEZ

Irungo La Salle - LH 6

**A**lejandro txikia zenean herri txiki batean bizi zen. Bere aita eta ama herriko ezagunenak ziren bere baratzeko fruitu eta barazkiak plazan saltzen zituztelako. Jendea, hara joaten zen eroatera, ia beste dendarik ez zegoelako eta baratzeko fruitu eta barazki freskoak oso onak zirelako.

Baina bere gurasoek ez zuten Alejandrokin denbora asko pasatzen denborarik ez zeukatelako, asteazkenetan bakarrik ikusten ziren.

Horregatik, amonaren etxean bizi zen; ez zeukan lagunik, baina bere amonak ondoko bizilagun bat aurkeztu zion eta denbora pasa eta gero oso lagunak egin ziren.

Urte bat pasa ondoren, bere amona hil egin zen eta bere aitak esan zuen barnetegi batean bizi izan

beharko zuela, baina berak ez zuen nahi. Eta bere lagunari komentatu zion. Bere lagunak esan zion:

–Ezin zara hemendik joan Alejandro, joaten bazara ez zaitut eta berriro ikusiko! Nire etxean geratuko zara!

Eta han geratu zen denbora luzean. Baina urteak pasa eta gero dena aldatu zen eta bere familiaren etxera bueltatu zen betirako.



# ATE DEBEKATUA

Nerea PIQUER

Irungo La Salle - LH 6

**B**azen behin Hakim izeneko gazte bat. Bere aita hil berria zen eta Hakimek bere aitaren diru guztia jaso zuen. Aberats bihurtu zen, baina diruak ez zion asko iraun, festetan gastatu zuelako eta laster dirurik gabe gelditu zen.

Bere gauza guztiak saldu behar izan zituen, jateko dirua lortzeko... Baina egun batean bere osaba zaharrarekin topatu zen eta Hakimek osabari laguntza eskatu zion. Osabak bere jauregian lan egitea proposatu zion eta baietz esan zion.

Baina osabak bi baldintza jarri zizkion: lehenengoa, ate debekatua ez irekitzea eta bigarrena, jauregian bizi ziren bost jekeei zerbitzatzea.

Urteak pasa eta urteak etorri jekeak hiltzen joan ziren eta Hakim bakar-bakarrik geratu zen... Eta berriro aberatsa egin zen.

Urte batzuk pasa ondoren Hakimek atea ireki zuen eta tunel batean agertu zen. Tuneletik ateratzerakoan hiru neskak erreginarenean jauregira eraman zuten eta erreginarekin ezkondu zen. Erreginak baldintza bat jarri zion: beraien ate debekatua ez irekitzea.

Zazpi urtetan pozik bizi izan zen, baina egun batean atea ireki zuen eta... dena galdu zuela konturatu zen.

## TXANGOIA

Ainara LANDA  
La Salle EIBAR - DBH 2

**H**ondartzan etzanda nengoen eta brisak aurpegia laztantzen zidan. Eguzkia harro-harro zegoen zeru urdin-urdinean, txorien txio-txioak entzun zitezkeen haien amei janaria eskatzeko asmotan. Bazirudien, olatuek, txoriek eta haizeak ados jarri zirela eta elkarlanean ari zirela inoiz ahaztuko ez dudan melodia bat sortzeko. Dena perfektua zen, inork imajina zezakeen paradisu batean nengoela ematen zuen. Baina, itsasoari begira nengoela, olatu erraldoi bat gerturatzen zela ikusi nuen –nik deabruaren antza antzeman nion–. Geroz eta handiagoa bilakatzen ari zen olatua eta, bat-batean, PLAST!

–Esna zaitetz behingoz, printzesatxoa! –oihu egin zidan Rubenek.

Eskuetan zeraman kantinplora ikusi eta konturatu nintzen nire egoera tristea ez zela aldatu. Negargura etorri zitzaidan.

–Falta zitzaiguna! Orain zu kontsolatu behar izatea.

–Isil zaitezte, karramarroak uxatuko dituzue eta! –kexatu zen Julen. Oraindik ere konturatu ez bazarete, oso sentikorrak dira eta berehala beldurtzen dira zuek bezalako astakirten batzuen oihuekin.

–Zer esan nahi duzu?!?! Gu iraintzen ari al zara? –galdetu genion batera.

–Barkatu mindu bazaituztet, baina zoruaren pare zabilzate bata bestea zirikatu nahian. Nik, gutxienez, lagun berriak egin ditut.

Egoerak txarrera egin zuen. Julen erotzen hasia zen; bada, karramarroei izenak jarri zizkien. Gainera, Rubenen pazientzia agortuz zihoan eta aztoratuta zebilen batetik bestera. Ikuskizun hark film batekoa zirudien. Nik ezin nuen ingurua begiratzeari utzi. Beharbada, koba zikin hartatik irteteko irtenbideren bat bilatzekotan. Baina nire ilusioak aireak eraman zituen Julenen kantu eta dantzekin. Nire aurrean ikusten nuena ezin nuen hitz bakarrarekin deskribatu: zoramena, etsipena, tristura, haserrea...

Julen zorameneraren bigarren fasera heldu zela iruditu zitzaidan. Han-hemenka ikusten nuen karramarroei koreografiak irakasten.

–Eta bai eta bi eta gero, buelta! Aurrera, atzera, jauzi egin...

Gainera, hori gutxi izan balitz, Ruben biraoak botatzeari ekin zion. Uste nuen egoerak ezin zuela txarrera egin, baina oker nenbilen. Bat-batean, zorua mugitzen hasi zen. Lurrikara bat zirudien. Sabaia gure gainera erortzen hasia zen. Begiak itxi nituen eta ...

–Zer, zer, zer gertatu zen? –galdetu zuen ume batek.

–Isil zaitetz behingoz! Bestela, ezin izango du istorioa bukatu –ohartarazi zion beste batek.

–Hau ez da istorio bat. Hau beraiei gertatutako abentura erreala da –zuzendu zien andereñoek.

–Bueno, jarrai dezaket? –galdetu nien.

–Bai! Jarrai ezazu, mesedez –esan zuten denek batera.

–Bueno ba, begiak itxi nituen eta..., bolumena jaitsiz, zelako sorpresa hartu genuen! Suhiltzaileak agertu ziren eskailera luze batekin. Eskaileretatik igo eta gurasoak ikusi genituen. A zer-nolako poza gurea! Besarkadak, musuak, beste besarkada handiago bat... Suhiltzaileak manta batzuk eman zizkiguten eta bero-bero egon ginen denbora luzez gurasoek paperak betetzen zituzten bitartean. Bizitza osoan ez nuen sekula manta bero bat gehiago balioetsi. Azken finean, normalean ditugun gauzak ez ditugu balioesten. Baina galtzen ditugunean, faltan botatzen ditugu, lagunak, familiako kideren bat... hauexek dira adibiderik onenak.

–Oso ondo! PLAST, PLAST, PLAST! –egin zuten txalo ume guztiek.

–Eskerrik asko zeuen abentura kontatzeagatik –esan zigun andereñoek.



–Nik ere abenturaren bat bizi nahiko nuke –esan zuen ume batek.

–Egia da denok bizi nahiko genukeela abenturaren bat bizitzan. Baina abentura mota asko daude eta orain entzun duzuen kontakizunari esker, badakizue

oso garrantzitsua dela ondo prestatuta egotea egunen batean halakorik gertatzen bazaizue– azaldu zien irakasleak.

–Gu mendiko txango batean galduta ibili ginen eta bueltak eta bueltak eman eta gero zulo batetik kobara jausi ginen. Beraz, halako egoerak saihesteko, orientazio klaseak izango ditugu astean zehar. Gaian aditua den mendizale bat etorriko da... –erantsi nuen.

–Benetako abentura nola izan zen jakin nahi baduzue, nik kontatuko dizuet –moztu zidan Rubenek.

–Beharbada, hurrengo batean izango da. Gaurkoz nahikoa izan dutela uste dut –esan zuen andereñoak irribarre zabal batekin.

## FERMATEN TEOREMAN ZINTZILIK

Naresh ZUBIARRAIN  
La Salle BEASAIN - DBH 3

*Nire bizia,  
linfa hodian antzekoa da,  
itsua,  
irteerarik gabea.*

*Nire funtzio  
bakarra...  
zelulen hondakinak  
jasotzea da.*

*Zu berriz,  
odolaren zirkulazioa.*

*Hain perfektua,  
hain konplexua.*



*Hainbeste hodi,  
hainbeste ezaugarri...*

*Globulu zuriak,  
globulu gorriak,  
plaketak,  
eta zure begi marroiak  
niri begira xamur.*

*Zure ile beltzarana  
haizetan hegan  
atsekaitz?*

*Zu eta ni,  
gongoilean elkartzea,  
nire ametsa  
betirako,  
betirako...  
elkarrekin.*

# ILTZE HONEK HILTZEN GAITU

Uxue PEREZ

La Salle BEASAIN - DBH 3

**Lurrak  
ertzak ez,  
baina zorrak  
ongi iltzatuta dauzka.**

Erraza izan arren  
zaila bilakatzen dena...

Nork?  
Guk.

Zergatik?  
**Ezpalak ateratzen ari beharrea**  
**GEHIAGO**  
**sartzen dizkiogulako.**

Nolatan?  
**Zorrak kitatu beharrea,**  
**ertzak urratu nahian**  
**gabiltzalako.**

Oraindik  
behin eta berriz.  
**Iltzearen burua egurrean**  
**sartzen,**  
**gupidarik gabe,**  
**gure bihotzetan ezpalek**  
**MINIK**  
**ez dutelako eragiten.**



“Egiteko gehienak  
egiteke daude”  
baina...  
gutxinaka gutxinaka

**hark irentsiko gaitu gu.**

Egiteko bat bera ere egin gabe,  
**erantzuna aurkitu baino lehen**  
**DESAGERTUTA.**

# KAIKO, MARIA

Maddalen GONZALEZ

La Salle EIBAR - DBH 4

Ipurterre lehieketako lehenengo saria

**B**adakizu gure koadrilan ez dela euskara erabiltzen. Imajina ezazu herri txiki bat. Herri honen bihotza iturri bat da, iturri oso zaharra eta polita.

Herria iturriaren inguruan eraikita dago, txikia da, baina herri bakarra da. Etxebizitza berriak eraiki dira, baina bizitza guztia daramaten etxeak ere badaude, noski. Horietako etxe askoren hondakinak bakarrik ikusten dira, beste gehienak jausteko zorian daude, baina han jarraitzen dute, zutik euria, tximistak, elurra eta beroari aurre egin eta gero. Etxe berriak eraiki dira, herria apaintzeko, herria bizirik irauteko. Eraikin berrien jabeek ez dute bere etxea egoera kaskarretan ikustea nahi, horregatik ondo zaintzen dituzte, egoera onean egoteaz arduratzen dira.

Herriko iturriak etxe guztiak elkartzen ditu. Herriaren bihotza delako, herritar guztiak, gazteak nahiz zaharrak, iturriaren inguruan eta iturria ikusten hazi direlako.

Iturria ez al da euskara? Euskaldun guztiok euskara barnean daramagu, hitz egin edo ez. Euskara gure bihotzetan dago.

Orain, Maria, pentsa ezazu. Etxe batzuk jausi dira, euskara hitz egiten zuten pertsonak direla jo dezagun. Amore eman zuten pertsonak direla imajinatu, euskara hitz egiteari utzi ziotenak. Etxe horietako askok ez dira inoiz berreraikiko baina beste batzuk bai.

Beste etxe batzuk jausteko zorian daude, baina zutik jarraitzen dute. Ez dira hauek amore emango ez duten pertsonak? Jende askok ez dio euskaraz hitz egiteari utziko, gure hizkuntza maite dutelako.

Eta etxe berriak eraiki dira, pertsona askok euskara desagertzeko zorian egon zela ikusita, hitz egitera animatu dira.

Baina orduan, gure hizkuntza maitean hitz egiteko, zergatik ditugu hainbeste arazo?

Etxeak zaintzea kostatzen da, baina benetan maite badugu, edozer gauza egiteko gai gara. Gure lana izango da etxeak zaintzea, eta beste asko eraikitzea. Eta orain, gure artean euskaraz hitz egiteko gai izango garela uste al duzu?

Muxuak.



## **Bakarrik egoteko modu berriren bat bakarrik egoteko modu ez-hain-mingarri bat elkarrekin partekatzeako bakardade berri bat berri txarrak**

Naiara SUESCUN

La Salle-Berrozpe ANDOAIN - Batx 1

**A**skotan beldur gara besteek zer esango diguten gure pentsaeratan, beraz guretzako jasotzen dugu batzuetan hori guztia. Bai pentsatu, sentitu... batzuetan pentsatzen dugu guk bakarrik ahal dugula dena konpondu, baina ez, askotan hobe da lagunekin partekatzea gaizki zauden une horiek, beraiek lagun zaitzaten.

Horregatik jende askok bere barrenean jasotzen du guztia, besteen beldur, baina beste batzuk beste irtenbide batzuk dituzte, pentsatzen duten guztia idazten dute, deskargatzeko modu bat izango balitz bezala, eta azkenean hori izan daiteke benetan hoberena, bestei esan beharrean, hitzez dena esplikatzeko orri batean, inoren erantzun txarrik gabe.

Bakardadea da jende askori gustatzen zaiona, baina jendeak ulertzen ez duena. Mendira joatea, etxean pelikulak edo irakurtzen geratzea... edozer

gauza egitea baina bakarrik. Eta hori da beste batzuek ulertzen ez dutena: nola egon daiteke pertsona bat bakarrik lagun babesa eduki gabe?

Hori da azken finean bakoitzak aurkitu behar duena, bere burua aurkitu, askok bakardadea nahiago dute, baina beldur dira besteek esan dezaketinari buruz.

Bakarrik egotea libre egotearen seinale da, bakoitzaren libertateaz, nahi duena egitearen askatasuna, aske bizitzea bakarrik, besteen laguntza bakarrik. Horregatik batzuetan lagunak alde batera utzi behar dira bakoitzak bere burua ezagutu dezan, pentsamendu on eta txarrak idatziz paperan, asko izateko sentsazioarekin, inoren menpe bizi gabe.



# MUSIKA BAI ALA EZ ETA ZE MOMENTUAN?

Unai BALERDI

La Salle-Berrozpe ANDOAIN - Batx 1

**G**aur egun, musika denontzat eskuragarri dago eta denon gustukoa izan daiteke. Batzuek dirua irabazteko erabiltzen dute eta beste batzuek berriz, egunerokoan distraitzeko edo denbora pasatzeko. Gizarte honetan oso garrantzitsua da eta txiki txikitatik hasten gara entzuten gure amaren sehaska-kanta. Niretzako ezinbestekoa da musika, mundu honetan gehien gustatzen zaidana dantzatzea da eta musika gabe ezin denez dantzatu ezinbestekoa da.

Musika kasu batzuetan oso ona eta lagungarria da baina beste askotan ez da lagungarria eta arazoak sortzen ditu entzuleen artean.

Alde batetik, musikak distraitzen laguntzen digu eta hori askorentzat lagungarria da bizitza errealaz ahaztu eta musika entzuten jartzen direlako kantan guztiz kontzentratua. Adibidez, etxeko arazoak momentu batez ahaztu ditzakezu eta zure kanta gustukoena jarrita kantan soilik kontzentratu. Baina hari beretik jarraituz, lanak egiteko momentuan txarra izan daiteke zeren deskontzentratu besterik ez zara egiten eta norberaren lan kalitatea jaitsi egiten du.

Beste alde batetik, musikak diru kopuru handiak mugitzen ditu mundu guztian zehar eta youtuben sartu eta kanta bat entzutearekin abeslari horri dirua ematen diogu. Horrekin lanpostu edo bizimodu berriak sortzen dira. Baina diru kopuru handi horiek pertsona baten edo beste baten eskuan erori ez da berdina. Adibidez, badira abeslari ugari dirua Ong eta behartsuen erakundeei ematen dietenak baina badaude beste asko drogetan eta kotxeak eta kotxeak erosten gastatzen dutenak. Horrek azkenean euren bizitza guztiz aldatzen du eta geroz eta kanta desberdinagoak hasten dira egiten euren diruari buruzko esaldiak kantatuz. Horrek entzulea baldintzatzen du kanta hori entzutean. Dirua behar dela pozik bizitzeko pentsatzen dutenez arazoetan sar daitezke.

Musikak gizarte talde desberdinak banatzen ditu, esaterako, Rapa entzuten dutenak gizarte talde batean egongo dira eta Popa entzuten dutenak beste talde batean, horrela musikak jendea lotzen du interes berberetatik eta kontzertu batera joanez gero bertan zure interes berbereko jendea ezagutuko duzu.

Laburbilduz, ondorio gisa, musika kasuaren arabera da ona eta ikasten gaudenean oso garrantzitsua da ikasketetan bakarrik kontzentratzea, zeren musikan kontzentratzen bagara ez dugu ikasiko eta musika baino garrantzitsuagoa da ikastea eta lan on bat edukitzea, eta horrela ez bada, ez gara inora iritsiko eta bizitza guztia gustuko ez duzun lan bat egiten pasatzea oso gogorra eta pisutsua da.

Nire ustez, musika oso garrantzitsua da gure bizitzetan eta ez luke hain komertziala izan behar, hau da, kanta bat entzun nahi badugu denok eduki beharko genuke kanta hori entzuteko eskubidea.



## XXXVII. EUSKARAREN EGUNA

Jose Manue AGIRREZABALAGA

Argazkiak: Javier ALONSO


Salletarron Euskararen Egunak, joan zen azaroan, Arantzazura eramán gintuen, eta nola ez, Gipuzkoan ospatzea tokatzen baitzitzaigun. Guk ere, Euskaltzaindiaren mendeurrenaren eraginez eta Arantzazuko Batzarraren 50. urteurrenak bultzaturik, Arantzazu hautatu genuen topaleku, hain esanguratsua baitzaigu euskara arloan eta fede arloan.

Azaroaren bigarren larunbata dugu gordea urtero Euskararen Eguna ospatzeko. Oraingo honetan azaroaren 10a zen. Ez da, ez, berria Euskararen Eguna hau gure artean. 1981a ezkerro etenik gabe bildu izan gara, urtez urte, txandaka Bizkaiko nahiz Gipuzkoako, Arabako, Nafarroako nahiz Iparraldeko txokoren batean. Eta azkeneko honetan Arantzazun elkartu izan gara, berrogeitik gorako salletar taldea, gizon eta emakume, Anai eta Sekular, Bizkaiko eta batez ere Gipuzkoako herrietatik etorriak.

Geurekin, geure gogo-bihotzetan, igo ziren Arantzazura ere udaldiaren hastapenetan joan zitzaizkigun bi Anai maitagarri, euskal alorrean oso emankorrak izanak: Patxi Ezkiaga eta lokin Otaegi. Oroigarrizat, bertan banatzeko, eramán genuen argitara berria zen lhintzaren 102. zenbakia, batari eta besteari buruz soilik diharduena. Hirugarren beste Anai euskaltzale eta idazle bat ere gogoan izango genuen, aspalditxoan zendua, 1982an, Nikolas Alzola Gerediaga *Bitaño*. Izan ere, honen ipuin-multzo bat berrargitaratu berri izana baitzuen Labayru Fundazioak, *Mugarrapetik kontu kontari*. Liburu hau ere banatu genuen han bildutakoen artean.

Oraindik aipatu ez baldin badut ere geurekin, salletarrokin, izan genuen egun osoan Paulo Agirrebaltzategi, Euskaltzain ohorezko eta frantziskotar Anaia.

Ohiko agur eta besarkaden ondoren hamar eta erditarako Asis Topaguneko aretoan ginen denok **Ekitaldi Kulturalari** hasiera emateko.



Bildutako guztiei ongiatorria Jose Manuel Agirrezabalagak eman zien eta topaketa aurkeztu bere ekitaldi ezberdinak aipatuz: Ekitaldi kulturala, bisita gidatua, Eukaristia eta bazkaria. Ondoren Joxe Erzibengoak Paulo Agirrebaltzategi aurkeztu zuen eta gurekin hark izandako harremanak aipatu zituen.

Paulok, gaiari ekin aurretik, zoriondu gintuen 37 urtetan zehar Euskararen Eguna ospatzeak esan nahi duenagatik eta urte luzetan ikastetxeak euskalduntzeko egin dugun guztiagatik.

Paulok, **Euskaltzaindiaren Mendeurrena eta Arantzazuko Batzarraren 50. Urtemuga** izan zuen mintzagai, betiere Arantzazuko ikuspegitik eta Arantzazuren eragina kontuan hartuz. Eta halaxe, Euskaltzaindiaren sorreran (1918-1919) eta 1968ko Batzarrean Arantzazuk izandako protagonismoa abiapuntutzat harturik data eta gertaera esanguratsuen ibilbide historikoa eskaini zigun.

Azpimarratu zuen 1950-1970 susperraldidenboraldia. Bai Arantzazuko Santutegiak bizi izan zuena baita euskara eta euskal kultur arloan gertatukoa ere. 1968an basilika berria bukatzeaz zegoen (1950-1969), Bitoriano Gandiaga izanik santutegi berriaren interpretazio eta zentzu berriaren emaile. Euskaltzaindian ere pertsona berriak sartu ziren (Federico Krutwig, Manuel Lekuona, Pierre Lafitte, Luis Villasante, Koldo Mitxelena, Txillardeg... ) eta euskara estandar, batu



eta modernoa bideratzeko ahaleginak egiten ari ziren han eta hemen: 1956 (bilera Arantzazun), 1958 (Txillardegiren lanak), 1964 (Baionako proposamenak), 1965 (Joxe Azurmendiren lanak). 1968an Arantzazuko Batzarrean hartuko ziren euskara batuaren aldeko erabaki sendoak eta 63 batzarkidek sinatuko zuten euskara batua onartzeko eta sustatzeko konpromisoa. Ez zen arazorik gabeko batzarra izan, denek ez baitzetozen bat. 1970an Luis Villasante, frantziskotarra, izendatzen duite Euskaltzainburu, hemezortzi urtetan hartutako erabakien ildotik ekingo du.

Azkenik aipatu zigun azken urriaren 4tik 6ra bitartean Arantzazun Euskararen Batasunari buruz egin berria zen Kongresua, *Arantzazutik mundu zabalera* lemapean. Jardunaldi akademikoa izan zen, hitzaldi eta komunikazio ugari: euskararen estandarizazio-bidean Euskaltzaindiak egindako urratsak azaldu ziren, beste hizkuntzetan egindakoak tartekatuz, Galizian, Katalunian, Frisian...; eta hezkuntzan, komunikabideetan, ingurune digitalean, lan-munduan, administrazioan, literaturan eta itzulpengintzan egindakoak ere. Bi aurkezpen berezi ere egin ziren: Euskaltzaindiaren webgune berri-tuarena eta *Euskara Batuaren Gidaliburuarena*. Kongresuaren bukaeran euskal gizarte eta herriari zuzenduriko Adierazpena irakurri zen eta, han bertan, 36 erakundek berretsi zuten, beren sinadura ipiniz.

Galdera batzuei Paulok erantzun ondoren eman zitzaion amaiera ekitaldi kultural interesgarriari.

Santutegiaren aurrean taldearen argazkia atera ondoren **bisita gidatuari** ekin genion. Denboraz eskas genbiltzanez santutegira mugatu behar izan genuen bisitaldia. Gidari Anjel Gonzalez Txabarri frantziskotarra genuen. Basilikaren ataurrealdeari so lehenbizi, apostoluei eta han goiko pietateari. Interesen arabera begirada ezberdinez ikusten omen da Oteizaren arte-lana: eskultura-begiradaz, artistikoaz, sinbolikoaz, transzendentzi begiradaz... Santutegira jaitsi eta Txillidaren burdinazko ate sendoa gurutzatu ondoren ilunpea, pixkanaka argitzen joango den ilunpea, barnetasunera deitzen gaituen ilunpe-argitasuna. Aurrera, absidera hurbildu ahala, urdintasunezko ingurugiroa nagusi – Javier Alvarez de Eulateren beirate ederrei esker–,

eta Lucio Muñoz-en erretaula aurrez aurre argi zenitalez kontenplatzeko eta Andre Mariaren irudi txikia. Kamarinera ere igo ginen gertu-gertutik harrizko irudi txikia ikusteko eta Xabier Egañaren sei muralak.



Ordu-bata eta erditan Asis Topaguneko kaperan elkartu ginen **Eukaristia** ospatzeko, esker onez. Paulo bera genuen meza-buru. Eta aldare gainean jarri genituen, aipatutako hildako gure Anaien oroimenez, Ihintza 102.a, Patxi Ezkiagaren *Blues bat bizitzari*. *Antologia poetikoa* eta Nikolas Alzola Bitañoren *Mugarrapetik kontu kontari*. Bata eta bestea bezperan izan ziren jendaurrean aurkeztuak: Patxirena Donostian goizez eta Bitañorena arratsaldez Izurtzan (Bizkaia), haren jaioterrian.

Salbatore Mitxelena zarauztar frantziskotarraren *Zuk zer dezu, Arantzazu!* kanta sentikorrarekin eman genion hasiera ospakizunari:

*Zuk zer dezu, Arantzazu!*

*ameskabi, otoitz-leku?*

*Euskal Herria oso-osorik*

*kantari dijoakizu.*

*Izena bera Arantzazu*

*kanta ederrena dezu.*

*Hitz bakar hori mintza orduko*

*kantari jartzen gaituzu.*

Igandeko irakurgaiak entzun genituen. Alargunaren figura zuten aipagai, gizarteetako zaugarri ororen sinbolo. Eta erantzun gisa Patxiren *Hau da* esperantzazko poema abestu genuen:

*Hau da agindutako lur berria,*

*esperantzaren errainuz betea,*

*eternitatearen lur bizia.*

## Euskararen Eguna

*Hau da errukiaren lur gozoa,  
barkamenaren hitz, kantu ederrez  
gizakion bihotzean ehoa.  
Jauna, hau da eman didazun lurra,  
bertan sustraituta egin dezadan  
nire bizitza edertasun ikurra.*

Paulok, bere aldetik, Bitoriano Gandiaga ekarri zigun gogora, alderdi honi buruzko haren bizipena, hautapena eta konpromisoa. Gandiagak *bajuak* deituko lituzke gaurko irakurgaietan ageri zaizkigun Sareptako eta Jerusalemgo alargunak: herri bajua, jende bajua, hizkuntza bajua aipatzen ditu zenbait olerkietan. Bajuaren sinboloa da Gandiagarentzat Arantzazuko elorria ere, berak halako errukiz eta maitasunez eta mireshenez kantatu izan zuena. Gandiagak pobreen aldeko aukera egina zuen, bera ere pobre eta bajuetakoa izanik: *Ni neurez naiz behekoen aldekoa...* idatzi zuen.

*Ni neu libreago naiz  
ta hau dut zertan poztu:  
babesik gabe nago  
ta ez dut nork zaitu,  
bajuen zoritxarra  
bai dut aukeratu.*

Eta euskaldun bajuentzat idatzi nahi du berak euskaraz:

*Nire bertsoak badaki  
beheko jendearen mina.  
Nire bertsoak badaki.  
Badaki behean itotzen  
dela behekoen zotina.*

*Arantzazuko Ama Birjina* abesti ezagunarekin bukatu aurretik Patxiren *Ama* poema hunkigarria izan genuen bihotz gozagarri (*Jaunarekin supazterrean*, 149 or.):

*Hitzez hitz, Ama, edo hitzik gabe,  
baina esadazu, esan  
maite nauzula,  
sarri ziurtasun beharrean baikaude  
misterioaren haurrak.  
Hitz gozoen leuntasunaren beharrean,  
ukitu ziurtagarriaren indarraren,  
eguneroko herio isiletik  
askatuko gaituen hurbiltasunaren beharrean.  
[... ..]*

*Hitzez hitz, edo hitzik gabe,  
baina inprima ezazu nigan, inprimatu  
“Maite zaitut” salbagarria,  
izarrezko su goritan bailitzan.*

Ordu-bi eta erdiak inguruan Sindika jatetxeko jangela argi bezain ikusgarrian –harkaitzez inguraturik– bildu ginen **bazkarirako** jai-giro alaian. Ez ginen bakarrik jangelan, baziren beste bi talde handi ere. Kafe-garaian ekin genion kantatzeari Periko Alkainen eskusoinua genuela hauspo-emaile. Beste mahaikideak ere sartu ziren geure martxan eta *Zorionak zuri* jotzeko ere eskatu ziguten, haur batek bost urte betetzen zituela-eta. Nola ez? Geure arteko bik ere beren urtebetetze-eguna ospatzen zuten. Hirurentzat izan zen guztion zorion-desioa. Beste abesti ezagunekin tartekatuz Martin Lasak jarritako zortzi bertso ere denon artean kantatu genituen.

Azken hitz moduan, frantziskotarrei, eta bereziki Paulori, eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen Arantzazun izan dugun harreragatik.

Paulok, bere aldetik, oroigarritzat, Joseba Intxaustik idatzi berri duen *Asisko Frantzisko* liburu dotorea oparitu zigun, eskaintza honekin: *Salletarron eta Frantziskotarron adiskidetasun eta lankidetzaren seinale Euskararen aurrerabidean. Euskararen XXXVII. egunaren oroigarri. Paulo. 2018.11.10.*

Egun betea eta euskararen aldeko konpromisoaren eguna bizi izan genuen salletarrok Arantzazun, Euskaraldia baino bi aste lehenago.







La  Salle

**GURE HEZKUNTZA SAREA EUSKAL HERRIAN**

---

Andoain - Beasain - Donostia La Salle - Donostia San Luis

Eibar Azitain - Eibar Isasi - Irungo La Salle - Zarautz - Zumarraga

Bilbo La Salle - Bilbo Elkarbanatuz - Sestao Andra Mari - Sestao Artizar